

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1638/2006 (EE) ERREGELAMENDUA

2006ko urriaren 24koa

Auzotasun eta Elkarketarako Tresna Europarra sortzeari buruzko xedapen orokorrak ezartzekoa.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratata, eta bereziki, bere 179. eta 181. A artikulua kontuan harturik,

Batzordearen proposamena ikusirik,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki¹, eta hauek kontuan hartuta:

(1) Erkidegoaren kanpo-laguntzaren eraginkortasuna handitze aldera, laguntzaren plangintza eta hornikuntza arautzen duen marko berri bat proposatu da. Erregelamendu hau Europar Batasunaren kanpo-politikari laguntza zuzena emateko tresnetako bat da.

(2) 2002ko abenduaren 12an eta 13an, Kopenhagen bilduta, Kontseilu Europarrak berretsi zuen Europar Batasunaren zabalkuntzak aukera paregabea eskaintzen duela, balio politiko eta ekonomiko komunitatik abiatuta, aldameneko herrialdeekiko harremanak sendotzeko. Hala, adierazi zen Europar Batasunak ez duela marra banatzaile berririk ezarri nahi Europan, eta egonkortasuna eta oparotasuna sustatu nahi dituela bai Europar Batasunean bai Europar Batasunetik kanpo.

(3) 2004ko ekainaren 17an eta 18an, Bruselan bilduta, Kontseilu Europarrak berretsi egin zuen garrantzi handikotzat jotzen duela auzo-herrialde horiekiko lankidetzaren indartzea, lankidetzaren eta inplikazio komunean oinarrituta, eta balio komunak lantzea; besteak beste, demokraziaren eta giza eskubideen errespetua.

(4) Europar Batasunaren eta bere aldameneko herrialdeen arteko harreman pribilegiatuek oinarri hauek izan behar dituzte: balio komuneko konpromisoak, besteak beste, demokrazia, Zuzenbideko Estatuaren, gobernu ona eta giza eskubideen errespetua; merkatu-ekonomiaren printzipioak, hau da, merkataritza irekia, ekitatezkoa eta araupetua; garapen iraunkorra; eta txirotasuna murriztea.

(5) Garrantzitsua da erregelamendu honi jarraiki emandako Erkidegoko laguntzek behar bezala betetzea Erkidegoa, Estatu Kideak eta herrialde elkartuak alderditzat dituzten nazioarteko akordio eta hitzarmenak, baita laguntza horiek nazioarteko zuzenbideko printzipio orokorrak aintzat hartuta ematea ere.

(6) Lankidetzaren eta kooperazio-akordioak dira kontratu-erlazioen oinarria Ekialdeko Europan eta hegoaldeko Kaukasoko herrialdeetan. Mediterraneoan, Elkarte Euromediterraneoak ("Bartzelonako Prozesua"), lankidetzarako eskualde-esparrua egituratzen du, elkartze-akordioaren sare batez osaturik.

(7) Europako auzotasun-politikaren barruan, Europar Batasunak eta herrialde elkartuek batera adostutako ekintza-planen sortaren barruan integratzeko lehentasunen multzoa definitu dute; ekintza-plan horiek jarduketa espezifikotarako (elkarrizketa eta erreforma politikoa, ekonomia- eta merkataritza-erreformak, bidezko garapen sozial eta ekonomikoa, justizia eta barne-auziak, energia, garraioa, informazioaren gizartea, ingurumena, ikerketa eta berrikuntza, gizarte zibilaren garapena, eta herrien arteko harremanak) giltza diren hainbat esparru hartzen dituzte. Lehentasun horiek gorpuzten joan ahala, kooperazio- eta lankidetzaren akordioei nahiz

¹ 2006ko uztailaren 6ko Europako Parlamentuaren Irizpena (Aldizkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea), eta 2006ko urriaren 17ko Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

elkartze-akordioei potentzial guztia ateratzen joango zaio.

(8) Herrialde elkartuek printzipio eta balio komunekiko hartu duten konpromisoa, nahiz ekintza-planak aplikatzeko egin dituzten ahaleginak babeste aldera, herrialde horiei laguntza emateko eta haien arteko, nahiz haien eta Estatu Kideen arteko kooperazioa bultzatzeko aukera izan behar du Erkidegoak, integrazio-maila ekonomiko eta politiko handia inplikatzeko duen eremu egonkor, seguru eta oparoa sortzeko.

(9) Auzotasun-eremuan erreforma politiko, ekonomiko eta sozialak sustatzea Erkidegoaren laguntzaren helburu garrantzitsua da. Mediterraneoan, EBk Mediterraneoarekin eta Ekialde Hurbilarekin duen Elkarketa estrategikoaren atal mediterraneoaren barruan bilatuko da helburu hori. Afrikako iparraldearen aldamenen dauden herrialde mediterraneoekiko erlazioetan, kontuan hartuko dira Europar Batasunaren Afrikarako strategiako elementu egokiak.

(10) Europako auzotasun-politikak ezarritako markoaren barruan garapen bidean dauden aldameneko herrialdeei ematen zaien laguntzak Europako Erkidegoko garapen-politikaren helburu eta printzipioekiko koherentzia gordetzea garrantzitsua da, 2005eko abenduaren 20an Kontseiluak, Kontseiluan bildutako Estatu Kideetako Gobernuen ordezkariak, Europako Parlamentuak eta Batzordeak onartu zuten "Garapenari buruzko adostasun europarra"¹ Adierazpen bateratuan azpimarratu bezala.

(11) Europar Batasunak eta Errusiak haien arteko elkarketa estrategiko espezifikoak garatzea erabaki dute, lau arlo komun sortuz; hala, Erkidegoak laguntza emango du elkartze hori bultzatzeko, eta mugez gaindiko lankidetzak sustatzeko, Errusiaren eta Europar Batasuneko bere auzokoen arteko mugetan.

(12) Iparraldeko dimentsioak Europar Batasunaren, Norvegiaren, eta Islandiaren arteko lankidetzarako esparru bat eskaintzen du, eta garrantzitsua da erkidegoaren laguntza-esparru horren aplikazioan

laguntzen duten ekintzak babesteko ere baliatzea. Politika horren helburu berriak iparraldeko dimentsioari buruzko 2005eko azaroaren 21eko ministerio-bileran hartutako jarraibideen arabera prestatuko dira adierazpen politiko batean eta esparru-agiri politiko batean.

(13) 1995eko azaroaren 28an Bartzelonako Adierazpenean ezarri, eta Gailur Euromediterraneoan 2005eko azaroaren 28an berretsi zen Elkarrekin Euromediterraneoaren markoaren barruan eman behar zaie laguntza eta kooperazioa Mediterraneoan herrialde elkartuei, eta kontuan hartu behar da 2010erako merkataritza-eremu librea ezartzeari buruz, nahiz liberalizazio-prozesu asimetrikoa hasteari buruz testuinguru horretan lortutako adostasuna.

(14) Kooperazioa sustatzea garrantzitsua da, Batasunaren kanpoko mugetan nahiz herrialde elkartuen artean, bereziki haien artean geografikoki hurbil dauden herrialdeen artean.

(15) Marra banatzaile berriak ager ez daitezten, bereziki garrantzitsua da Europar Batasunaren kanpoko mugetan zehar mugez gaindiko kooperazio eraginkorrerako oztipoak ezabatzea. Mugez gaindiko kooperazioak aldameneko mugak eskualdeetako garapen integratu eta iraunkorra ekarri behar du, baita eskualdeak Erkidegoan nahiz aldameneko herrialdeekin harmoniaz integratzea ere. Helburu hori lortzeko biderik egokiena kanpo-politikaren helburuak eta ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorra den kohesio ekonomiko eta sozialarekin uztartzea da.

(16) Aldameneko herrialde elkartuei haien helburuak lortzen lagundu eta haien nahiz Estatu Kideen arteko kooperazioa sustatzeko, komenigarria da ezartzea politikan kontzentratutako tresna bakarra ezartzea, instrumentu jakin batzuk ordezkatu, koherentzia bermatu, eta laguntzaren programazioa zein kudeaketa errazte aldera.

(17) Gainera, instrumentu honek herrialde elkartuen eta Estatu Kideen arteko mugez gaindiko kooperazioa indartu behar du, kudeaketarako mekanismo bakarra eta prozedura-multzo bakarra izanik, eraginkortasunari dagokionez lorpen

¹ C 46 EO, 2006.2.24koa, 1 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

nabarmengarriak lortzen direlako. Horren abiapuntua 2004-2006 epean Auzotasun Programak bideratu zirenetik lortutako eskarmentua izango da, eta besteak beste, urte anitzeko programazioa, elkarketa eta lagundutako finantzazioa printzipio gisa hartuz funtzionatuko da.

(18) Europako Esparru Ekonomikoaren (EEE) barnean dauden, eta gaur egun Estatu Kideen eta herrialde kideen arteko mugez gaindiko kooperazioan parte hartzen ari diren herrialdeetako muga-eskualdeek kooperazioan haien baliabide propioekin jarraitu ahal izatea garrantzitsua da .

(19) Erregelamendu honek aurrekontuen autoritatearentzat erreferentzia pribilegiatua izango den diru-hornidura ezarri du 2007-2013 eperako, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen aurrekontu-diziplinari buruzko instituzio arteko Akordioaren 37. puntuaren arabera¹.

(20) Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituen 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/CE Erabakiaren arabera², egokia da Erregelamendu hau betearazteko beharrezkoak diren neurriak onartzea.

(21) Mugez gaindiko kooperazioaren gauzatzea arautzen duten aplikazio-arauak definitzean, eta dokumentu estrategikoak, ekintza-programak nahiz 10.000.000 euroko muga gainditzen duten eta dokumentu estrategikoetan aurreikusi ez diren neurriak hartzerakoan, aplikagarria izan behar da kudeaketa-prozesuaren baliabidea.

(22) Estatu Kideek Erregelamendu honen helburuak, hots, kooperazio indartua nahiz Europar Batasunaren eta aldameneko herrialdeen arteko integrazio ekonomiko mailakatua sustatzea, ezin dituztenez erdietsi behar den neurrian, eta ondorioz, ekintzaren tamaina dela medio, erkidego-mailan hobe lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake

¹ C 139 EO, 2006.6.14koa, 1 or.

² L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiaren bidez (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.) aldatutako Erabakia.

Tratatuaren 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun printzipioari jarraiki. Artikulu horretan enuntziatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu hau ez doa aipatutako helburuak betetzeko beharrezkoa den baino urrunago.

(23) Erregelamendu honen eraginez, beharrezkoa da ondorengoak indargabetzea; Erkidegoak hirugarren herrialde mediterraneoekin duen teknika- eta finantza-kooperazioaren protokoloak aplikatzeari buruzko Kontseiluaren 1762/92 Erregelamendua (EEE)³, 1992ko ekainaren 29koa, Zisjordaniarekiko eta Gazako Zerrendarekiko teknika- eta finantza-lankidetzari buruzko Kontseiluaren 1734/94 Erregelamendua (EE)⁴, 1994ko uztailaren 11koa, eta lankidetzaren euromediterraneoaren markoaren barruko egitura ekonomiko eta sozialen erreformarako finantza- eta teknika-neurri osagarriari (MEDA) buruzko Kontseiluaren 1488/96 Erregelamendua (EE)⁵, 1996ko uztailaren 23koa. Era berean, Erregelamendu honek ordezkatu egiten du Kontseiluaren 99/2000 Erregelamendua⁶ (EE, Euratom), 1999ko abenduaren 29koa, 2006ko abenduaren 31n iraungipen-data duen Ekialdeko Europako eta Erdiko Asiako Estatu elkartuei laguntza emateari buruzkoa.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I TITULUA

HELBURUAK ETA PRINTZIBIOAK

1. artikulua

³ L 181 EO, 1992.7.1.ekoa, 1. or. 2112/2005 Erregelamenduaren (EE) bidez (L 344 EO, 2005.12.27koa, 23. or.) aldatutako Erregelamendua.

⁴ L 182 EO, 1994.7.16koa, 4. or. Azken aldiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2110/2005 Erregelamenduaren (EE) bidez (L 344 EO, 2005.12.27, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

⁵ L 189 EO, 1996.7.30ekoa, 1. or. Azken aldiz 2112/2005 Erregelamenduaren (EE) bidez aldatutako Erregelamendua.

⁶ L 12 EO, 2000.1.18koa, 1. or. 2112/2005 Erregelamenduaren (EE) bidez aldatutako Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Xedea eta aplikazio-eremua

1. Erregelamendu honek Europar Batasuna nahiz eranskinean izendatutako herrialde eta eskualdeak (aurrerantzean "herrialde elkartuak") hartuko dituen oparotasun eta auzotasun oneko eremua garatzeko Erkidegoaren laguntza emateko Auzotasun eta Elkarketarako Tresna ezartzen du.

2. Erkidegoaren laguntza herrialde elkartuen mesedetan erabili beharko da. Erkidegoaren laguntza Estatu Kideen eta herrialde elkartuen nahiz haien eskualdeen interes komunerako erabili ahal izango da, mugez eta eskualdeez gaindiko kooperazioa, 6. artikuluan definitutakoa, sustatzeko helburuarekin.

3. Europar Batasunaren oinarri dira demokrazia, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetua nahiz Zuzenbideko Estatuak, eta herrialde elkartuetan balio horiekiko konpromisoa sustatzen saiatzen da Batasuna elkarrizketa eta kooperazioaren bitartez.

2. artikulua

Erkidegoaren laguntzaren norainokoa

1. Erkidegoaren laguntzak kooperazio indartua zein Europar Batasunaren eta herrialde elkartuen arteko integrazio mailakatua sustatuko ditu, eta bereziki, lankidetzak eta kooperazio-akordioak, elkartzeko akordioak eta existitzen diren nahiz etortzeko dauden akordioak aplikazioa. Era berean, herrialde elkartuek gobernu onaren nahiz bidezko garapen ekonomiko eta sozialaren alde egiten dituzten ahaleginak bultzatzea ere xede izango du.

2. Erkidegoaren laguntza kooperazio-arlo hauetan neurriak babesteko erabiliko da:

a) erreforma eta elkarrizketa politikoak bultzatzea;

b) arau eta legeak maila altuagoetara altxatzea arlo egoki guztietan, eta bereziki, herrialde elkartuek nazioarteko merkatuan parte har dezaten sustatzea, eta merkataritzaren areagotzea;

c) Nazio-mailako instituzioak eta erakundeak indartzea, baldin eta haien ardura bada politikak egitea eta modu eraginkorrean aplikatzea Erkidegoa edo/eta Estatu kideak partaide diren elkartzeko

akordioek, lankidetzak-akordioek, lankidetzak eta kooperazio-akordioek eta alde anitzeko akordioek zehaztutako eremuetan, eta, betiere, akordio horien xedea bada artikuluan honetan araututako helburuak betetzea;

d) Zuzenbideko Estatuak eta gobernu ona sustatzea, baita administrazio publikoaren eraginkortasuna eta sistema judiziala indartzea, nahiz ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borroka babestea ere;

e) garapen iraunkorra sustatzea, alderdi guztietan;

f) garapen-ekimenak abiaraztea tokiko eta eskualdeko mailetan, landa- nahiz hiri-eremuetan, desorekak murriztu, eta tokiko nahiz eskualdeko garapen-gaitasuna hobetzeko;

g) ingurunearekiko ardura, naturaren kontserbazioa eta baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra (itsasoko eta ur gezetako baliabideak barne) sustatzea;

h) txirotasuna murriztea xede duten politikak babestea, Nazio Batuen Milurtekorako Garapen Helburuak betetzen laguntzeko;

i) gizartearen garapena, gizartean sartzea, genero-berdintasuna, diskriminaziorik eza, enplegua eta gizarte-babesa (langile migratzaileena barne), gizarte-elkarrizketa, eta eskubide sindikalen nahiz lanaren funtsezko arauen errespetua (umeen lana barne) bultzatzen dituzten politikak sustatzea.

j) gaixotasun kutsakor nagusien, eta gaixotasun nahiz gaitz ez kutsakorren aurkako neurriak bultzatuz osasunaren, hezkuntzaren eta trebakuntzaren sustapenerako politikak babesteaz gain, osasun-hezkuntza eta -zerbitzuen erabilpena ere sustatzea (emakume eta neskentzat haur- eta ugalketa-osasuna barne)

k) giza eskubideak nahiz funtsezko askatasunak sustatu eta babestea, emakume eta haurren eskubideak barne;

l) demokratizazioa babestea, besteak beste, gizarte zibilaren erakundeen papera, eta komunikabideetako pluralismoaren promozioa indartzeko, baina baita

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hauteskunde-ikuskaritzaren eta horietan parte hartzearen bitartez ere;

m) Gizarte zibilaren nahiz gobernu kanpoko erakundeen garapena sustatzea;

n) merkatu-ekonomiaren garapena sustatzea, (sektore pribatuari eta ETEn garapenari laguntzeko neurriak barne) inbertsioa bultzatzea, eta munduko merkataritza sustatzea;

o) energiaren, telekomunikazioen eta garraioaren sektoreetan lankidetzat sustatzea elkarloturak, sareak eta horien operazioak kanpoan utzi gabe, nazioarteko garraioaren eta energia-operazioen segurtasuna eta babesa hobetzea, eta energia-iturri berriztagarriak, energia-eraginkortasuna, nahiz garraio garbia bultzatzea.

p) hiritarren elikagai-segurtasuna areagotzea xede duten ekintzei laguntza ematea, batez ere arlo sanitarioan eta fitosanitarioan.

q) mugen kudeaketa eraginkor eta segurua bermatzea;

r) Justiziaren eta barne-afere arloan erreforma babestu eta gaitasuna indartzea, besteak beste, alderdi hauetan; asiloa, migrazioa eta berronartzea, eta gizakien trafikoaren, terrorismoaren zein krimen organizatuaren aurkako borroka, horien finantzazioa, diru beltza zuritzea eta iruzur fiskala nahiz horren prebentzioa barne;

s) iruzur eta ihes fiskalaren aurka borrokatze aldera, administrazioen arteko kooperazioa babestea, argitasuna eta informazioaren elkartrukea areagotzeko.

t) Erkidegoko ikerketa- eta berrikuntza-ekintzetan parte hartzea sustatzea;

u) goi-mailako hezkuntzari eta irakasle, ikerlari eta ikasleen mugikortasunari dagokionez, Estatu Kideen eta herrialde elkartuen arteko kooperazioa bultzatzea;

v) kulturen arteko elkarrizketa, herrien arteko kontaktuak (Estatu Kideetan bizi diren komunitateekiko kontaktuak barne), gizarte zibilen

eta kultura instituzioen arteko kooperazioa, eta gazteen elkartrukeak sustatzea;

w) ondare historiko eta kulturalaren babeserako kooperazioa babestea, eta bere garapen-potzientziala sustatzea, baita turismoaren bidez ere.

x) herrialde kideen parte hartzea babestea Erkidegoaren programa eta agenzietan;

y) mugetako eskualdeetan gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-garapen iraunkorra sustatzea ekimen partekatuen bitartez, mugez gairdiko kooperazioa, eta Erkidegoaren kanpo-mugetan zehar eskualde-garapen integratua sustatzea.

z) eskualdeko eta azpieskualdeko kooperazioa eta integrazioa sustatzea, egokia denean, Erregelamendu honen arabera Erkidegoaren laguntza jasotzeko eskubiderik ez duten herrialdeekiko ere.

aa) krisien ondorengo egoeretan laguntza ematea, errefuxiatu eta mugiarazitakoentzako laguntza barne, eta hondamendien aurkako prestaketan ere laguntzea.

bb) herrialde elkartuen arteko elkarrizketa sustatu eta komunikazioa bultzatzea, programen arabera finantzatutako neurri eta ekintzei buruz;

cc) elkarrentzat interesa duten arloetan funtsezko gai komunei heltzea, eta Erregelamendu honen eremuarekin koherente den beste edozein helburu.

3. artikulua

Esparru politikoa

1. Lankidetzat eta kooperazio-akordioek, elkartze-akordioek, herrialde elkartuekin elkartzea ezartzen duten orainaldiko nahiz etorkizuneko akordioek, nahiz Europar Batasunak herrialde horiekiko dituen politiken jarraibideak ezartzen dituzten Kontseiluaren ondorioek eta Batzordearen adierazpenek, Erkidegoaren laguntza programatzeko esparru politiko globala eskainiko dute Erregelamendu honi jarraiki. Elkarrekin onartutako ekintza-planak edo dokumentu baliokideak Erkidegoaren laguntzaren lehentasunak finkatzeko erreferentzia-puntua izango dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Europar Batasunak eta herrialde elkartuek 1. paragrafoan aipatutako akordioerik sinatu ez badute, Erkidegoaren laguntza Europar Batasunaren helburuak lortzeko baliagarria denean emango da, eta helburu horien arabera programatu beharko da.

4. artikulua

Osagarritasuna, elkarketa eta lagundutako finantzazioa

1. Hasiera batean, Erregelamendu honen araberako Erkidegoaren laguntzak dagozkion eskualdeko, tokiko edo herrialdeko estrategiak osatu edo babestu beharko ditu.

2. Erregelamendu honen araberako Erkidegoaren laguntza, oro har, Batzordearen eta onuradunen arteko lankidetzatik eratorriko da. Dagokionean, elkarketan parte hartuko dute nazioko, eskualdeko eta tokiko autoritateek, hizketakide ekonomiko eta sozialak, gizarte zibilak, eta beste organismo egokiek.

3. Beharrezkoa denean, herrialde onuradunek hizketakide egokiak dagokien eskualde-mailan inplikatzeko dute, batez ere eskualde eta tokiko mailan, programa eta proiektuen prestaketa, gauzatzea eta jarraipena egin dezaten.

4. Orokorrean, Erregelamendu honen araberako Erkidegoaren laguntzaren zati bat herrialde onuradunek finantzatzeko dute funts publikoen, onuradunen ekarpenen edo bestelako diru-iturrien bidez. Lagundutako finantzazioaren baldintzak alde batera utz daitezke behar bezala justifikatzen denean, edo giza eskubideak nahiz funtsezko askatasunak sustatu eta demokratizazioa bultzatzeko neurriak aplikatze aldera, gizarte zibilaren eta estatuaz kanpoko eragileen garapenerako beharrezkoa denean.

5. artikulua

Koherentzia, bateragarritasuna eta koordinazioa

1. Erregelamendu honen arabera finantzatzeko programa eta proiektuek Europar Batasunaren politikekin koherenteak beharko dute izan. Erkidegoak eta bere Estatu Kideek herrialde

elkartuekin sinatutako akordioekin ere bat etorri beharko dira, eta Parte dituzten alde anitzeko akordioei nahiz nazioarteko hitzarmenei jarraiki hartutako konpromisoak errespetatu beharko dituzte, giza eskubideei, demokraziari eta gobernu onari buruzko konpromisoak barne.

2. Batzordeak eta Estatu Kideek koherentzia bermatzeko dute Erregelamendu honi jarraiki emandako Erkidegoaren laguntzaren eta Erkidegoak nahiz Estatu Kideek kanpoko nahiz barruko beste finantzazio-tresnen bidez edota Europako Inbertsio Bankuaren (BEI) bidez emandako laguntzaren artean.

3. Batzordeak eta Estatu Kideek beren laguntza-programen koordinazioa bermatzeko dute kanpo-laguntzaren koordinazio eragilerako ezarri diren jarraibideen arabera emandako laguntzaren eraginkortasuna hobetu, eta politikak nahiz prozedurak harmonizatzeko. Koordinazioak aldizkako argibide eskaerak eta laguntza-zikloaren fase desberdinetan zehar informazio egokia, batez ere, arian-arian emandako informazioa maiz trukatzeko inplikatzeko du, eta Estatu Kideen nahiz Erkidegoaren programazio-prozesuaren elementu garrantzitsua izango da.

4. Batzordeak erakunde multilateralekin eta eskualdeetakoekin (nazioarteko finantza-erakunde, Nazio Batuen agentzia, funts eta programa, nahiz Europar Batasunekoak ez diren dohaintzagileekin, besteak beste) koordinazio eta kooperazio ona dagoela bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu Estatu Kideei dagokienez.

II TITULUA

PROGRAMAZIOA ETA FUNTSEN ESLEIPENA

6. artikulua

Programa-motak

1. Erregelamendu honen araberako Erkidegoaren laguntza hauen bitartez bideratuko da:

a) nazio-estategiak, nazio anitzeko estategiak, mugez gaindiko estategiak, eta 7. artikuluan

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

aipatutako urte anitzeko orientazio-programak, hauek hartuko dituztenak:

i) herrialde elkartu bati ematen zaion laguntza edo herrialde elkartu baten edo gehiagoren arteko eskualde- eta azpieskualde-mailako kooperazioa jorratuko duten programa nazional nahiz plurinazionalak; horietan Estatu Kideek parte hartu ahal izango dute.

ii) Erkidegoarekin, haren kanpo-mugekin, muga egiten duten eskualdeetan gauzatzekoak diren mugez gaindiko kooperazio-programak, Estatu Kide baten edo gehiagoren eta herrialde elkartu bat edo gehiagoren arteko kooperazioa jorratuko dutenak.

b) 9. artikuluan xedatutakoaren arabera kooperaziorako elkarrekiko programa eragileak; 12. artikuluan xedatutakoaren arabera urteko ekintza programak; 13. artikuluan xedatutakoari jarraiki, neurri bereziak.

2. Programa plurinazionalak eskualdeez gaindiko kooperazio-neurriak izan ahalko dituzte. Erregelamendu honi dagokionez, eskualdeez gaindiko kooperazioa erronka komunak dituzten Estatu Kideen eta herrialde elkartuen arteko kooperazio gisa ulertuko da, helburu gisa guztien onura duena, eta Estatu Kideen nahiz herrialde elkartuen lurraldeetan bideratzen dena.

7. artikulua

Programazioa eta funtsen esleipena

1. Programa nazional edo plurinazionalen kasuan, 26. artikuluan aipatutako prozeduraren arabera onartuko dira estrategia-dokumentuak. Estrategia-dokumentuek 3. artikuluan aipatutako politika-esparrua eta ekintza-plana jasoko dituzte, eta 4. zein 5. artikuluetan aurreikusten diren printzipio eta aldaerekin koherenteak izango dira. Politika-esparruan ezarritako lehentasunekin bateragarria den epe baterako ezarriko dira, eta urteko programa adierazleak izango dituzte, dagozkien urte anitzeko finantza-esleipen adierazleekin, eta 2. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitakoekin bat datozen lehentasuneko helburuak ere jasoko dituzte. Dokumentu horiek epe ertainera, edo beharrezkoa denean berrikusiko dira, eta berrikusketa 26.

artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki egin ahal izango da.

2. Programa nazionalak eta plurinazionalak prestatzerakoan, Batzordeak programa bakoitzerako esleipenak zehaztuko ditu, irizpide gardenak eta objektiboak erabiliz eta honakoak kontuan hartuz: herrialde edo eskualdearen beharrak nahiz ezaugarri espezifikoak, Europar Batasunak herrialde jakin batekin izan nahi duen elkartze-maila, adostutako helburuen betetzerantz egin diren aurrerakuntzak (gobernuari eta erreformari dagozkionak barne), nahiz onuradunek Erkidegoaren laguntza kudeatzeko eta xurgatzeko duten gaitasuna.

3. Mugez gaindiko kooperazioaren esparru eskusiboan, 9. artikuluko 1. paragrafoan aipatu diren elkarrekiko programa eragileen zerrenda prestatze aldera, 26. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki onartuko dira urte anitzeko esleipen adierazleak, programa bakoitzean parte hartzeko aukera duten lurralde-unitateak, eta estrategia-dokumentu bat edo, beharrezkoa izatekotan, batzuk.

4. Hainbat irizpide objektibo (adibidez, zonaldeen biztanleria, eta kooperazioaren intentsitateari eragiten dioten beste faktore batzuk, hala nola, muga-zonaldeen ezaugarri espezifikoak, nahiz Erkidegoaren laguntza xurgatu eta kudeatzeko duten gaitasuna barne) kontuan hartuz zehaztuko ditu Batzordeak mugez gaindiko kooperazio programetarako funts-esleipenak.

5. Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren bidez (EGEF), Erregelamendu honetan xedatutakoari jarraiki ezarritako eta aplikatutako mugez gaindiko kooperazio-programei lagunduko zaie. EGEFek herrialde elkartuen mugetarako egiten duen ekarpenaren zenbatekoa Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren eta Kohesiorako Europako Funtsaren xedapen orokorrak ezartzei buruzko Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamenduaren¹ (EE) xedapen aplikagarrietan ezartzen da.

¹ L 210 EO, 2006.7.31koa, 25 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6. Demokrazia, Zuzenbideko Estatua, giza eskubideak, eta funtsezko askatasunak kolokan edo krisian daudenean, edo hondamendi naturalen nahiz gizakiak eragindako hondamendien kasuan, larrialdiko prozedura baliatu ahal da estrategia-dokumentuak ad hoc berrikusteko. Erregelamendu honen arabera emandako Erkidegoaren laguntzaren eta Erkidegoaren beste finantza dokumentuei jarraiki emandako laguntzaren artean koherentzia mantentzen dela ziurtatu behar du berrikuspenak, Egonkortasun Tresna sortzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua¹ (Euratom) barne.

III TITULUA

MUGEZ GAINDIKO KOOPERAZIOA

8. artikulua

Hautagaitza geografikoa

1. 6. artikuluen 1. paragrafoko a) letrako ii) etenean aipatutako mugez gairik kooperazio programek muga-eremuak hauek hartu ahal izango dituzte: a) NUTS 3 mailari edo baliokideei dagozkien lurralde-unitate guztiak, Estatu Kideen eta herrialde elkartuen mugetan zehar; b) itsasoko ibilbide garrantzitsuetan dauden NUTS 3 mailako edo maila baliokideko lurralde-unitate guztiak; c) Estatu Kideekin eta herrialde elkartuekin itsas arro komuna duten NUTS 2 mailako edo maila baliokideko kostako lurralde-unitate guztiak. 2. Dagoen kooperazioaren jarraitasuna zaintzeko eta bestelako kasu justifikatuetan, 1. paragrafoan aipatutako lurralde-unitate mugakideei mugez gairik kooperazio programetan parte hartzen utzi ahal zaie, 7. artikuluko 3.3 paragrafoan aipatutako estrategia-dokumentuetan aurreikusitakoaren arabera. Programak 1. paragrafoko b) letrari jarraiki ezartzen direnean, Batzordeak, herrialde elkartuen adostasunaz, barruan NUTS 3 mailako lurralde-unitatea duen NUTS 2 mailako lurralde-unitate osoari ere irekitzea proposatu ahal izango du. Batzordeak itsasoko ibilbide garrantzitsuen zerrenda

¹ Aldizkari Ofizialean publikatu gabea.

definituko du distantziaren eta bestelako irizpide geografiko eta ekonomikoen arabera, 7. artikuluen 3. paragrafoan aipatzen den estrategia-dokumentuan.

9. artikulua

Programazioa

1. Muga bateko edo batzuetako kooperazioa barnean hartu, lehentasunen multzo koherente baten arabera orientatutako urte anitzeko neurriak jaso, eta Erkidegoaren laguntzari esker bidera daitezkeen urte anitzeko programen esparruan (aurrerantzean, "elkarrekiko programa eragileak") egingo da Erregelamendu honen araberrako mugez gairik kooperazioa. Elkarrekiko programa eragileak 7. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako estrategia-dokumentuetan oinarrituko dira.

2. Lurreko mugetarako eta garrantzi handiko itsas ibilbideetarako elkarrekiko programa eragileak dagozkien eskualde-mailan prestatuko dira muga bakoitzerako, eta Estatu Kide bat edo gehiagoren edo herrialde elkartu bat edo gehiagoren lurralde-unitate hautagarriak jasoko dituzte.

3. Kostaldeko eskualdeetarako elkarrekiko programa eragileak alde anitzekoak izango dira, eta itsasertz berekoak diren nahiz partaide diren herrialdeetako batzuen lurraldeen barruan dauden lurralde-unitate hautagarriak jasoko dituzte; herrialde horien artean gutxienez Estatu Kide bat eta herrialde elkartu bat egongo dira, eta kontuan hartuko dira elkarketa-printzipioa eta sistema instituzionalak. Estatu Kide baten eta herrialde kide baten arteko kooperazioan laguntzeko ekintza bilateralak ere jaso ahal izango dituzte. Programa horiek gertutik koordinatuko dira bikoiztasun partziala duten eta Europar Batasunak 1083/2006 Erregelamenduaren (EE) arabera onartu dituen nazioen arteko kooperazio-programekin.

4. Inplikaturako Estatu Kideak eta herrialde elkartuek egokia den lurralde-mailan aplikatuko dituzte elkarrekiko programa eragileak, haien instituzio-sistemaren arabera, eta kontuan harturik 4. artikuluan aipatutako elkarketa-printzipioa. Oro har, 2007ko urtarrilaren 1aren eta 2013ko abenduaren 31ren bitarteko zazpi urteko epea hartuko dute.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. Herrialde partaideez gain, itsas arro komun bateko herrialdeek ere elkarrekiko programa eragileria atxiki, eta Erkidegoaren laguntzaz gozatu ahal izango dute 11. artikuluan aipatutako arau aplikagarrietan xedatutakoari jarraiki.

6. 7. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako estrategia-dokumentuak onartu eta urte bateko epean, herrialde partaideek batera aurkeztuko diote Batzordeari elkarrekiko programa eragilearen proposamenak. Behin Erregelamendu honekiko eta arau aplikagarriekiko koherentzia ebaluatuz, Batzordeak elkarrekiko programa eragile bakoitza onartuko du.

7. Batzordearen, herrialde partaideen edo muga-eskualdeen ekimenez berrikusi ahal izango dira elkarrekiko programa eragileak, kontuan har daitezkeen kooperazio-lehentasunen aldaketak, bilakaera sozioekonomikoa, arauak aplikatzeak ekarri dituen emaitzak, ebaluazio- nahiz jarraipen-prozesua, eta laguntza eskuragarriaren zenbatekoak doitzeko nahiz baliabideak berresleitzeko beharrak.

8. Elkarrekiko programa eragileak onartutakoan, Batzordeak finantzazio-hitzarmen bat sinatuko du herrialde elkartuekin, Europar Erkidegoen aurrekontuei aplikagarria zaion finantza-erregelamendua onartzeko Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduko¹ (EE, Euratom) xedapen aplikagarriari jarraiki. Finantzazio-hitzarmenak elkarrekiko programa eragileak bideratzeko beharrezkoak diren xedapen juridikoak jasoko ditu, eta, dagokionean, 10. artikuluan aipatutako elkarrekiko kudeaketarako agintaritzak ere sinatu beharko du.

9. Herrialde partaideek batera hautatuko dituzte Erkidegoaren laguntza jasoko duen elkarrekiko programa eragilearen lehentasun eta neurriekin koherenteak diren ekintzak, kooperazio-printzipioa kontuan hartuz.

10. Bestela, kasu zehatz eta egokiro justifikatuetan, honako hauetan:

¹ L 248 EO, 2006.9.16koa, 1 or.

a) herrialde partaideen arteko edo Europar Batasunaren eta herrialde elkartu baten arteko erlazioen arazoengatik elkarrekiko programa eragilea ezartzea posible ez denean.

b) gehienez jota, 2010eko ekainaren 30ean herrialdeek oraindik Batzordeari elkarrekiko programa eragilerik aurkeztu ez badiote.

c) programa onartu eta hurrengo urtea bukatuta, herrialde elkartuek Finantzazio Hitzarmena oraindik sinatu ez badute;

d) Herrialde partaideen arteko erlazioen arazoak direla medio elkarrekiko programa eragilea bideratu ezin denean; kasu honetan, inplikaturako Estatu Kideari edo Estatu Kideei kontsultatu eta gero, inplikaturako Estatu Kideari EGEFaren ekarpena erabiltzeko aukera emango dioten neurriak hartuko ditu Batzordeak.

10. artikulua

Programen kudeaketa

1. Hasiara batean, elkarrekiko programa eragileak kudeaketa komunaren bidez aplikatuko ditu egoitza Estatu Kide batean duen elkarrekiko kudeaketarako agintaritzak batek. Elkarrekiko kudeaketarako agintaritzak elkarrekiko idazkaritza tekniko baten laguntza jasoko du.

2. Herrialde partaideek Batzordeari proposatu ahal izango diote elkarrekiko kudeaketarako agintaritzaren egoitza herrialde elkartu batean kokatzea, betiere, izendatutako erakundeak 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) xedapen egokietan ezarritako irizpideak guztiz betetzeko gai denean.

3. Erregelamendu honi dagokionez, “elkarrekiko kudeaketarako agintaritza” gisa ulertuko da Erkidegoaren laguntza kudeatzeko finantza- eta administrazio-gaitasuna nahiz Erregelamendu honen helburuak betetze aldera beharrezkoak diren akordioak sinatzeko gaitasun juridikoa duen edozein agintaritza edo erakunde eskualdeko, nazioko edo tokikoa, publiko zein pribatua; agintaritza horren izendapena Estatu Kideak edo Estatu Kideek eta elkarrekiko programa eragilearen babespean dagoen

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

herrialde elkartuak edo herrialde elkartuek egingo dute batera.

4. Elkarrekiko kudeaketarako agintaritzak elkarrekiko programa eragilea finantza-kudeaketa eta kudeaketa tekniko osasuntsuaren printzipioaren arabera kudeatzeko eta betearazteko erantzukizuna du. Orobat du bere ekintzen legezotasuna eta arauzkotasuna bermatzeko erantzukizuna. Horretarako, kudeaketarako, kontrolerako eta kontabilitaterako arau eta sistema egokiak ezarriko ditu.

5. Elkarrekiko programa eragile baten kudeaketa- eta kontrol-sistemak ondo berezita izan beharko ditu kudeaketa-, egiaztapen- eta auditoria-funtzioak, kudeaketa-autoritatearen barruan funtzioak ondo bereziz, edo egiaztapenerako eta auditoriarako organo ezberdinak izendatuz.

6. Elkarrekiko programa eragileen gauzatzea ondo prestatze aldera, behin elkarrekiko programa eragilea onaturik, eta Finantzazio Hitzarmena sinatu baino lehen, Batzordeak baimena eman ahal izango dio kudeaketarako agintaritzari programako aurrekontuaren zati bat kudeaketa-agintaritzaren programako gastuak (kudeaketa-autoritatearen jardunaren gastuak, laguntza teknikoak, edo bestelako prestaketa-ekintzak) finantzatzen hasteko erabiltzeko. Prestaketa-fase horren aldaerak 11. artikuluan aipatutako arau aplikagarrietan azalduko dira xeheki.

11. artikulua

Aplikaziorako arauak

1. 26. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki, aplikazio-arauak onartuko dira titulu honen aplikaziorako xedapen espezifikoak ezartzeko.

2. Aplikazio-arauek, besteak beste, auzi hauek jorratuko dituzte: zenbatekoa izango den lagundutako finantzaketa, nola prestatuko diren elkarrekiko programa eragileak, nola izendatuko den elkarrekiko kudeaketa-agintaritza, zeintzuk izango diren agintaritza horren eginkizunak, zeintzuk izango diren elkarrekiko idazkaritzaren kontrol- eta hautatze-batzordeen eginkizunak, zeintzuk gastu

finantzarriak, nola hautatuko diren elkarrekin proiektuak, prestakuntza-fasea, nola egingo diren Erkidegoaren laguntzaren kudeaketa teknikoak eta finantza-kudeaketa, finantza-kontrola eta auditoria, ebaluazioa eta jarraipena, eta nola jarri agerian programok onuradun izan daitezkeenentzat, nola eman haiei haien berri.

IV TITULUA

GAUZATZEA

12. artikulua

Ekintza-programak onartzea

1. 7. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako estrategia-dokumentuen arabera prestatutako ekintza-programak 26. artikuluko 2. paragrafoan zehazten den prozedurari jarraiki onartuko dira, hasiera batean, urtero. Salbuespen gisa, bereziki oraindik ekintza-programarik onartu ez denean, Batzordeak ekintza-programan jaso ez diren neurriak hartu ahal izango ditu ekintza-programetako arau eta aldaera berberen arabera, oinarri gisa estrategia-dokumentuak eta 7. artikuluan jasotako urte anitzeko programa adierazleak hartuta.

2. Ekintza-programek honako hauek zehaztuko dituzte: zein helburu lortu nahi den, zein esparrutan esku hartu nahi den, zein emaitza espero diren, zeintzuk diren kudeaketa-prozedurak, zein den aurreikusitako finantzazioaren guztirako zenbatekoa. Kontuan hartu beharko dute Erkidegoak lehenagotik emandako laguntzaren aplikazioan jasotako eskarmentua. Zein ekintza finantzatuko diren deskribatuko dute; orobat zehaztuko dute operazio bakoitzari esleitutako zenbatekoa, bai eta neurriak gauzatzeko gutxi gorabeherako egutegia ere. Era berean, neurri bereziak betearaztean nola gauzatzen ari diren jakiteko begiratu beharko diren adierazleen definizio bat ere eduki beharko dute.

3. Mugez gaindiko kooperazioari dagokionez, Batzordeak elkarrekiko programak onartuko ditu 9. artikuluan aipatutako prozedurei jarraiki.

4. Batzordeak Europako Parlamentuari eta Estatu Kideei aurkeztuko dizkie ekintza-programak eta mugez gaindiko elkarrekiko kooperazio-programak,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

onartu eta hilabetera, jakinaren gainean egon daitezten.

13. artikulua

Estrategia-dokumentuetan edo urte anitzeko programa adierazleetan aurreikusi gabeko neurri bereziak onartzea

1. Aurreikusi gabeko eta behar bezala justifikatutako behar edo gertakarien kasuan, Batzordeak estrategia-dokumentuetan eta urte anitzeko programa adierazleetan aurreikusi gabeko neurri bereziak hartuko ditu, aurrerantzean neurri berezi deituko direnak, alegia. Neurri horien bitartez, larrialdiko laguntzatik epe luzeko garapen-jardueretarako trantsizioa errazteko xedea duten ekintzak ere finantzatu ahal zango dira, onuradunak krisi errepikariei aurre egiteko prestatzea xede duten ekintzak barne.

2. Neurrien kostua 10.000.000 euro baino gehiagokoa denean, Batzordeak 26. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako kudeaketa-prozedurari jarraiki onartuko ditu. Ez dago zertan kudeaketa-prozedura hori baliatu neurri berezietan aldaketak egiteko, hala nola moldaketa teknikoak sartzea, neurriak betearazteko epea luzatzea, gutxi gorabehera jotako aurrekontuaren barruan kredituak berresleitzea edo aurrekontua hasierako aurrekontuaren % 20 baino gutxiago handitzea, non eta aldaketa horiek ez dieten eragiten Batzordearen erabakian ezarritako hasierako helburuei.

3. Neurri bereziek honako hauek zehaztuko dituzte: zein helburu lortu nahi diren, zein esparrutan esku hartu nahi den, zein emaitza espero diren, zein kudeaketa-metodo erabili diren, eta zein izango den aurreikusitako finantzaketaren zenbatekoa guztira. Finantzatuko diren operazioak deskribatuko dituzte. Orobat zehaztuko dute operazio bakoitzari esleitutako zenbatekoa, bai eta neurriak betearazteko gutxi gorabeherako egutegia ere. Halaber, neurri bereziak betearaztean, nola gauzaten ari diren jakiteko begiratu beharko diren adierazleen definizio bat ere eduki beharko dute.

4. Batzordeak Europako Parlamentuari eta Estatu Kideei helaraziko die 10.000.000 euro baino gutxiagoko kostua duten neurri berezien berri, onartu

eta hilabete epean, jakinaren gainean egon daitezten.

14. artikulua

Hautagarritasuna

1. Ekintza-programei, mugez gaindiko elkarrekiko kooperazio-programei, eta neurri bereziei dagokienez, honako hauek jaso ahal izango dute finantzazioa, Erregelamendu honen arabera:

a) herrialde nahiz eskualde elkartuek eta haien instituzioek;

b) herrialde elkartuetako erakunde deszentralizatuek, besteak beste, eskualdeek, departamentuek, probintziek eta udalerriek;

c) Erkidegoak eta herrialde nahiz eskualde elkartuek osatutako erakunde mistoek.

d) Erregelamendu honen helburuak betetzen laguntzen duten heinean, nazioarteko erakundeek, eskualdeetako erakundeek, Nazio Batuen erakundeek, nazioarteko finantza-erakundeek, garapen-bankuak barne;

e) Erkidegoko instituzio eta organismoek, baina 16. artikuluan jasotako laguntza-neurrien betearazpenaren barruan.

f) Europar Batasunaren agentziak;

g) Estatu Kideen, herrialde edo eskualde elkartuen, edo beste edozein hirugarren Estaturen erakunde edo organismo hauek, 21. artikuluan Erkidegoaren kanpo-laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen badituzte, eta, betiere, Erregelamendu honen helburuak lortzen laguntzen badute:

i) organismo publiko edo erdi-publikoek, tokiko administrazio edo erakundeek eta haien arteko baltzuek,

ii) sozietateek, enpresek, eta gainerako erakunde eta eragile ekonomiko pribatuek,

iii) herrialde eta eskualde elkartuetan inbertsio pribatuak eman, sustatu eta finantzatzen dituzten finantza-instituzioek,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

iv) h) letran definitutako estatuaz kanpoko eragileek,

v) pertsona fisikoek;

h) Estatuaz kanpoko eragile hauek:

i) gobernuaz kanpoko erakundeek,

ii) gutxiengo nazional edota etnikoen ordezkari diren erakundeek,

iii) tokiko elkarte zibikoek eta tokiko merkatarien elkarteek,

iv) kooperatibek, sindikatuek, eragile ekonomiko eta sozialen ordezkari diren erakundeek,

v) eskualdeko kooperazio eta integrazio deszentralizatuaren arloan diharduten tokiko erakundeek (sareak barne),

vi) kontsumitzaileen erakundeek, emakume eta gazteen erakundeek, irakaskuntza-, kultura-, ikerketa-, eta zientzia-erakundeek,

vii) unibertsitateak,

viii) elizek, eta erlijiozko elkarte edo komunitateak,

ix) komunikabideak,

x) mugez gaindiko elkarteak, gobernuaz kanpoko erakundeak eta fundazio beregainak, 2. Erregelamendu honetako helburuak betetzeko nahitaezkoa denean, artikulua honetan esplizituki aipatzen ez diren eragile edo erakundeei ere Erkidegoaren laguntza eman ahal izango zaie.

15. artikulua

Neurri-motak

1. Erkidegoaren laguntza Erregelamendu honetako helburuak betetzen laguntzen duten programak, proiektuak, edo edozein neurri finantzatzeko erabiliko da.

2. Erkidegoaren laguntza honetarako erabili ahal izango da:

a) laguntza teknikoa eta administrazio-kooperaziorako neurri zehatzak finantzatzeko, Estatu Kideek, eta programan parte hartzen duten tokiko edo eskualdeko autoritateek bidalitako sektore publikoko adituak partaide dituzten kooperazio neurriak barne.

b) horiekin erlazionatutako inbertsio eta ekintzak finantzatzeko;

c) 23. artikuluari jarraiki, EIBri edo beste finantza-bitartekariei ekarpenak egiteko, maileguz bidezko finantzaziorako, gizarte-kapitalean berme-funtsetan edo inbertsio-funtsetan inbertitzeko.

d) salbuespen-kasuetan, eta nazioartean adostutako zorra murrizteko programa baten barruan, zorra murrizteko.

e) herrialde elkartuak gastu publikoaren kudeaketa behar bezain garden, fidagarri eta eraginkor egiten duenean, eta herrialde horrek funts-hornitzaile nagusiek (dagokionean, nazioarteko finantza-instituzioek ere) onartutako sektore-politika edo politika makroekonomiko ondo definituak ezarri baditu, sektorekako aurrekontuei edo aurrekontu orokorreari laguntzeko.

f) interes-tipoen hobariak emateko, bereziki ingurumenaren sektoreko maileguetarako;

g) merkataritzakoak ez diren arriskuen aurkako aseguruak eskaintzeko;

h) Erkidegoak, bere Estatu Kideek, nazioarteko eta eskualdeko erakundeek, bestelako funts-hornitzaileak, edo herrialde elkartuek ezarritako funts bati ekarpenak egiteko;

i) nazioarteko finantza-instituzioen, edo eskualdeko garapen-bankuen kapitalari ekarpenak egiteko;

j) Erkidegoaren laguntza jasotzen duten herrialde onuradunek proiektuak eta programak ikuskatu eta administratzean sortzen diren gastuei aurre egiteko;

k) makroproiektuak finantzatzeko;

l) elikagaien segurtasun-neurrietarako. Hasiera batean, Erkidegoaren laguntza ezin izango da erabili

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zergak, aduana-eskubideak eta bestelako karga fiskalak finantzatzeko.

16. artikulua

Laguntza-neurriak

1. Erregelamendu honen aplikaziorako eta helburuak betetzeko beharrezkoak diren prestakuntza-, jarraipen-, kontrol-, auditoria- eta ebaluazio-lanei dagozkien gastuak ordaintzeko ere erabili ahal izango da Erkidegoaren finantzazioa, batez ere, informazio-, sentsibilizazio-, publikazio- eta trebakuntza-ekintzetarako, (herrialde elkartuei programaren fase desberdinetan parte hartzeko aukera emango diten trebakuntza- eta hezkuntza-neurriak barne) ikerketarako, bileretarako, informazioa elkartrukatzeko sare informatikoei lotutako gastuetarako, nahiz Batzordeak programaren kudeaketarako behar duen administrazio- edo teknika-laguntzako beste edozein gastutarako. Era berean, Erregelamendu honen arabera finantzatutako ekintzen kudeaketa bermatze aldera, Batzordearen Delegazioek administrazio-laguntzarako egiten dituzten gastuak ere jasoko dira.

2. Neurri horiek ez dute beharrezkoa izango urte anitzeko programazioa, eta beraz, estrategia-dokumentuak eta urte anitzeko programa adierazleak alde batera utzita finantzatu ahal izango dira. Hala ere, urte anitzeko programa adierazleen barruan ere finantzatu ahal izango dira. Batzordeak 13. artikuluan xedatutakoari jarraiki onartuko ditu urte anitzeko programa adierazleek hartzen ez dituzten laguntza-neurriak.

17. artikulua

Lagundutako finantzazioak

1. Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako neurriek, besteak beste, hauen finantzazio-laguntza jaso ahal izango dute:

a) Estatu Kideena, haien tokiko eta eskualdeko autoritateena, eta haien agentzia publiko nahiz erdi-publikoena;

b) EEEko kideak diren herrialdeena, Suitzarena, eta funts-hornitzaile diren beste herrialdeena, eta

bereziki haien agentzia publiko nahiz erdi-publikoena.

c) nazioarteko erakundeena, eskualdekoak barnea, eta bereziki, nazioarteko eta eskualdeko finantza-instituzioena.

d) sozietateena, enpresena, gainerako eragile eta erakunde ekonomiko pribatuena, eta estatuaz kanpoko beste eragileena;

e) herrialde elkartuena, eta funtsen onuradun diren herrialdeena. 2. Lagundutako finantzazio paraleloaren erregimenean, proiektua edo programa erraz identifikatzeko moduko azpiproiektuetan banatzen da, eta horietako bakoitza lagundutako finantzazioan parte hartzen duen herrialde elkartuetako batek finantzatzen du; era horretan, uneoro identifika daiteke finantzazioaren azken helburua. Baterako lagundutako finantzazio-erregimenean, lagundutako finantzazioan parte hartzen duten herrialde elkartuek haien artean banatzen dituzte guztizko kostuari egin beharreko ekarpenak, jarritako funts guztiak batera jartzen dira, eta era horretan, ezin da identifikatu programa edo proiektuaren parte gisa egindako edozein ekintza zehatzen finantzazioaren iturburua. 3. Elkarrekin lagundutako finantzazio-erregimenean, Batzordeak 1. paragrafoko a), b) eta c) letretan jaso diren erakundeen izenean kudeatu eta jaso ahal izango ditu funtsak. 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) 18. artikuluaaren arabera esleitutako diru-sarrereri ematen zaien tratamendu bera jasoko dute funts horiek.

18. artikulua

Kudeaketa-prozedurak

1. Batzordeak Erregelamendu honi dagozkion operazioak 1605/2002 Erregelamenduari (EE, Euratom) jarraiki egingo ditu.

2. Batzordeak 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) 54. artikuluko 2. paragrafoaren c) letran aipatzen diren organismoen eman ahal izango dizkie autoritate publikoaren eginkizunak, batez ere, aurrekontuaren exekuzioari dagozkionak, baldin eta nazioarteko maila onartua badute, nazioartean onartutako kudeaketa- eta kontrol-sistemak betetzen

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

badituzte, eta autoritate publiko baten ikuskaritza badute.

3. Batzordeak esparru-akordioak sinatu ahal izango ditu herrialde elkartuekin, eta horietan, Erkidegoaren laguntza eraginkortasunez gauzatzen dela ziurtatu, eta finantza-interesak babesteko beharrezko neurri guztiak jasoko dira.

4. Kudeaketa deszentralizatuaren kasuan, Batzordeak herrialde edo eskualde elkartu onuradunaren diru-laguntzak kontratatu edo esleitzeko prozedurak baliatzeko aukera izango du kasu hauetan:

a) herrialde edo eskualde elkartu onuradunaren prozedurek gardentasunaren, proportzionaltasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak errespetatzen dituzten bitartean;

b) herrialde edo eskualde elkartu onuradunak Erkidegoaren aurrekontuarekin finantzatutako operazioak era egokian gauzatu direla aldizka ziurtatzeko, irregulartasunak eta iruzurrak ekiditeko neurriak hartzeko eta, beharrezkoa denean, bidegabe ordaindutako funtsak berreskuratzeko konpromisoa hartzen duenean.

19. artikulua

Aurrekontu-konpromisoak

1. Batzordeak 9. artikuluko 6. paragrafoaren, 12. artikuluko 1. paragrafoaren, 13. artikuluko 1. paragrafoaren, eta 16. artikuluko 2. paragrafoaren arabera hartutako erabakiak izango dira aurrekontu-konpromisoen oinarria.

2. Finantza-ekitaldi bat baino gehiago hartzen dituzten neurrietarako aurrekontu-konpromisoak hainbat ekitalditan zeharreko epeetan zatitu ahal izango dira.

3. Erkidegoaren finantzazioek, besteak beste, forma juridiko hauek hartuko dituzte: finantzazio-hitzarmenak, diruz laguntzeko kontratuak, kontratu publikoak, eta lan-kontratuak.

20. artikulua

Erregelamendu honetatik eratorritako akordio guztiek Erkidegoaren finantza-eskubideen babesa bermatzeko xedapenak jasoko dituzte, batez ere, irregulartasunei, iruzurrari, ustelkeriari eta legez kanpoko beste edozein jarduni dagokienez, eta betiere Europako Erkidegoen finantza interesen babesari buruzko 1995eko abenduaren 18ko Kontseiluaren 2988/95 Erregelamenduari¹ (EE, Euratom), Europako Erkidegoen finantza-interesak iruzur eta irregulartasunen aurka Batzordeak in situ egiten dituen kontrol eta egiaztapenei buruzko 1996ko azaroaren 11ko Kontseiluaren 2185/96 Erregelamenduari (Euratom, EE)², eta Iruzuraren aurkako Borrokatzeko Europako Bulegoak egindako ikerketei buruzko 1999ko maiatzaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 Erregelamenduari³ (EE) jarraiki.

2. Akordioek esanbidez ezarriko dute Erkidegoaren funtsak jaso dituzten kontratista edo azpikontratista guztiei Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak auditoriak (dokumentalak edo in situ) egiteko duten ahalak. Gainera, Batzordeari esanbidezko baimena eman beharko diote 2185/96 Erregelamenduko (Euratom, EE) xedapenei jarraiki ikusketak eta kontrolak in situ egin ditzan.

3. Erkidegoaren laguntzaren gauzatzearen emaitza diren kontratuetan, artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den eskubidearen erabilpena bermatuko zaie Batzordeari eta Kontuen Auzitegiari, kontratuak betearazi bitartean eta ostean.

21. artikulua

Lizitazio eta kontratuetan parte hartzea

1. Erregelamendu honen arabera finantzatutako kontratu publikoen edo diruz laguntzeko kontratuen esleipenean parte hartzea libre izango da honako pertsona fisiko eta juridiko guztientzat: Erkidegoko

¹ L 312 EO, 2006.12.23koa, 1 or.

² L 292 EO, 2006.11.15ekoa, 2 or.

³ L 136 EO, 2006.5.31koa, 1 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Kide den Estatu bateko nazionalitatea duten pertsona fisikoak, edo egoitza bertan duten pertsona juridikoak; Aurreatikipenean laguntzeko tresna ezartzen duen 2006ko uztailaren 17ko Kontseiluaren 1085/2006 Erregelamenduari¹ (EE) jarraiki sortutako Aurreatikipen Tresnaren onuradun den herrialde bateko nazionalitatea duten pertsona fisikoak edo egoitza bertan duten pertsona juridikoak.

2. Batzordeak behar bezala justifikatutako kasuetan baimendu ahal izango du merkataritzan, ekonomian eta geografian aldameneko herrialdeekin lotura tradizionalak dituzten herrialdeetako nazionalitatea duten pertsona fisikoen, nahiz herrialde horietan finkaturik dauden pertsona juridikoen parte hartzea, baita jatorri desberdina duten hornigaien erabilpena ere.

3. Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako kontratu publikoen edo diruz laguntzeko kontratuen esleipenean parte hartzea libre izango da 1. paragrafoan aipatu ez diren herrialdeetako nazionalitatea duten pertsona fisikoentzat, edo herrialde horretan finkatutako pertsona juridikoentzat ere, betiere batek bestearen kanpo-laguntzak eskuratzeko modua ezarri bada. Batek bestearen kanpo-laguntzak eskuratzeko modua ezarriko da baldin eta herrialde batek berdintasunezko baldintzetan eskaintzen badie hautagarritasuna Estatu Kideei eta delako herrialde hartzaileari.

Erkidegoaren kanpo-laguntza elkarrekikotasunez eskuratzeko modua herrialde jakin bati buruzko edo eskualde jakin bateko herrialde-multzo bati buruzko erabaki espezifiko baten bitartez ezarriko da. Erabaki hori Batzordeak hartuko du 26. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki, eta gutxienez urte batez izango da indarrean.

Erkidegoaren kanpo-laguntzak elkarrekikotasunez eskuratzeko baimena emateko alderaketa egin beharko da Erkidegoaren eta beste emaileen artean;

alderaketa hori herrialde osoan eta sektoreka bideratuko da, herrialde emailea izan nahiz hartzailea izan. Herrialde hartzaile bati elkarrekikotasuna emateko erabakia herrialde horrek emandako laguntzaren gardentasunean, koherentzian eta proportzionaltasunean hartuko da, laguntza horren izaera kualitatiboa eta kuantitatiboa ere tartean dela. Herrialde onuradunei kontsulta egingo zaie paragrafo honetan deskribatutako prozesuan.

4. Nazioarteko erakundeek ere parte hartu ahal izango dute Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako kontratu publikoen edo diruz laguntzeko kontratuen esleipenean.

5. Kontratuen esleipen-prozesuen testuinguruan proposatutako adituek ez dute zertan lehen aipatu diren nazionalitatearen arauak bete.

6. Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako kontratu baten babesean erositako hornigai eta material guztiak Erkidegoan edo artikuluko honen arabera hautagarria den herrialde batean izango dute jatorria. Erregelamendu honen xedetarako, aduana-xedetarako jatorri-arauei buruzko Erkidegoaren legedian definitutako terminoa ulertuko da jatorri gisa.

7. Behar bezala justifikatutako kasuetan, 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen ez diren herrialdeetako nazionalitatea duten pertsona fisikoen nahiz herrialde horietan finkatutako pertsona juridikoen parte hartzea baimendu ahal izango du Batzordeak, edo 6. paragrafoan aipatu direnez bestelako jatorria duten hornigai eta materialen erosketa. Salbuespenak justifikatu ahal izango dira interesa duten herrialdeetako merkatuetako produktuen eta zerbitzuen baliaezintasuna dela medio, larrialdi biziko arrazoiengatik, edo hautagarritasun arauak proiektu, programa edo ekintza bat bideratzea oso zail edo ezinezko bihurtzen badute.

8. Erkidegoaren finantzazioak nazioarteko erakunde baten bidez gauzatutako operazio bat babesten duenean, 1., 2. eta 3. paragrafoei jarraiki hautagarriak diren pertsona fisiko edo juridikoek, nahiz delako erakundeko arauak jarraiki hautagarriak diren pertsona fisiko edo juridikoek parte hartu ahal izango dute beharrezkoak diren kontratazio-

¹ L 210 EO, 2006.7.31koa, 82 or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

prozeduretan; emaile guztiei tratu berbera ematea zainduko da. Arau berberak izango dira aplikagarri hornigaiei, materialei eta adituei dagokienez.

Erkidegoak Estatu Kide batekin, 3. paragrafoaren arabera kanpo-laguntzak elkarrekotasunez eskuratzeko modua duen hirugarren herrialde batekin edo eskualdeko erakunde batekin batera egiten den operazio bat finantzatzen duenean, horretarako beharrezkoak diren kontratazio-prozeduretan parte hartu ahal izango dute 1., 2. eta 3. paragrafoaren arabera hautagarriak diren pertsona fisiko edo juridikoek nahiz Estatu Kidearen, hirugarren herrialdearen edo eskualdeko erakundearen arauen arabera hautagarria den pertsona fisiko edo juridiko guztiek. Arau horiek aplikatuko zaizkie hornigaiei, materialei eta adituei dagokienez.

9. Erregelamendu honen esparruko Erkidegoaren laguntza 10. artikuluan aipatu den elkarrekiko kudeaketarako agintaritzak kudeatzen duenean, 11. artikuluan aipatutako arau aplikagarriek ezarriko dituzte kontratazio-arauak.

10. Erregelamendu honi jarraiki kontratua esleitu zaien lizitatuak Lanaren Nazioarteko Erakundearen dagozkion hitzarmenetan definitutako funtsezko lan-arauak beteko dituzte.

11. Beren izaerarengatik edo ekintzaren helburuekiko kokapenarengatik hautagarriak diren erakundearen kategorien kalterik gabe ulertuko dira 10erako paragrafoak.

22. artikulua

Aurrefinantzazioa

Onuradunen aldeko aurrefinantzazio-ordainketetatik sortutako interesak azken ordainketari kenduko zaizkio.

23. artikulua

EIBren edo beste finantza-bitartekariaren esku jarritako funtsak

1. 15. artikuluan (2. paragrafoa, c letra) jasotako funtsak finantza-bitartekariak, EIBk edo funts horiek

administratzeko behar den gaitasuna duen beste edozein banku edo erakunde administratuko ditu.

2. Batzordeak kasu bakoitzerako 1. paragrafoko xedapen aplikagarriak onartuko ditu arriskuen banaketari, exekuzioa egin behar duen bitartekariaren ordainketari, funtsek sortutako etekinen erabilpen eta berreskurapenari nahiz operazioa ixteari dagokienez.

24. artikulua

Ebaluazioa

1. Batzordeak aldizka ebaluatuko ditu mugez gaindiko nahiz geografari lotutako politika eta programak, sektore-politikak zein programazioaren eraginkortasuna, helburuak bete diren argitu eta etorkizuneko operazioak hobetzeko gomendioak prestatze aldera.

2. Batzordeak 26. artikuluan aipatutako Lantaldeari emango dizkio ebaluazio-txostenak, eztabaida daitezten. Txosten horiek eta dagokien eztabaida atzeraelikatze-mekanismoa izango dira, programak prestatu eta baliabideak esleitzeko.

V TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

25. artikulua

Urteko txostena

Batzordeak Erregelamendu honi jarraiki hartutako neurrien aplikazioan egindako aurrerapenak aztertu, eta urtero Erkidegoaren laguntzaren exekuzioari buruzko txosten bat emango die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txosten hori Ekonomia eta Gizarte Komiteari nahiz Eskualdeetako Komiteari ere emango zaie. Txostenean hauei buruzko informazioa jasoko da, aurreko urtearekin alderatuta: finantzatutako neurriak, kontrol- eta ebaluazio-ekintzen emaitzak, eta konpromiso eta ordainketen aurrekontu-exekuzioa, herrialde edo eskualde elkartuen nahiz lankidetzaren arabera ordenaturik.

26. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Lantaldea

1. Batzordeak Lantalde baten laguntza jasoko du.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak. 1998/468/EE Erabakiko 4. artikulua 3. paragrafoan jasotako epea hogeita hamar eguneko izango da.
3. Lantaldeak bere barne-erregelamendua onartuko du.
4. EIBko behatzaile batek EIBri eragiten dioten Lantaldearen lanetan parte hartuko du.
5. Europako Parlamentuarekiko elkarriketa errazte aldera, Batzordeak Lantaldearen lanei buruzko informazioa emango dio, eta 1999/468/EE Erabakiko 7. artikulua 3. paragrafoari jarraiki, dagozkion dokumentuak emango dizkio, batez ere, gaien zerrendak, neurrien proiektuak, eta bileren akta laburtuak.

27. artikulua

Eranskinean jaso gabeko hirugarren herrialde baten parte hartzea

Erkidegoaren laguntzaren koherentzia eta eraginkortasuna ziurtatze aldera, 12. artikuluan jasotako ekintza-programak edo 13. artikuluan jasotako neurri bereziak aplikatzerakoan, Erkidegoaren eta Garapenerako Europako Funtzaren kanpo-laguntzarako beste instrumentu batzuen bidez laguntza jasotzeko aukera duten herrialde, lurralde eta eskualde jakinek ere Erregelamendu honen arabera hartutako neurrien onura jasotzea erabaki ahal izango du Batzordeak, aplikatutako proiektu edo programak izaera horizontala, eskualdekoa edo mugez gaindikoa duenean.

2. Aukera hori 7. artikuluan aipatutako estrategia-dokumentuetan eta urte anitzeko programa adierazletan aurreikusi ahal izango da.
3. Hautagarritasunari buruzko 14. artikuluko xedapenak, eta kontratazio-prozeduran parte hartzeari buruzko 21. artikuluko xedapenak

mintzagai diren herrialde, lurralde eta eskualdeen parte hartzea onartzeko moldatuko dira.

4. Erkidegoaren kanpo-laguntzarako hainbat tresnaren bidez finantzatutako programen kasuan, kontratazio-prozedura guztietan parte hartu ahal izango dute tresna batzuen eta besteen arabera hautagarri diren herrialdeetako pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek.

28. artikulua

Erkidegoaren laguntza bertan behera uztea

1. Lankidetzaren eta kooperazio-akordioetako nahiz herrialde eta eskualde elkartuen sinatutako elkartze-akordioetako laguntza bertan behera uzteari buruzko xedapenen kalterik gabe, herrialde elkartu batek I Tituluko 1. artikuluan jasotako printzipioak errespetatzen ez dituenean, Erregelamendu honi jarriki herrialde elkartuari emandako laguntza guztiari buruzko neurri egokiak hartu ahal izango ditu Kontseiluak, Batzordeak proposatuta eta gehiago kualifikatuz.

2. Kasu horietan, giza eskubideak eta funtsezko askatasunak sustatu zein babestea, nahiz herrialde elkartuetako demokratizazio-prozesuei laguntza ematea helburu duten gobernu kanpoko eragileen neurriak babesteko erabiliko da batez ere Erkidegoaren laguntza.

29. artikulua

Finantza-hornidura

1. Erregelamendu hau 2007-2013 epean aplikatzeko finantza-horniduraren zenbatekoa 11.181.000.000 eurokoa izango da, eta era honetan xehekatuko da:

a) gutxienez finantza-horniduraren %95 esleituko zaie 6. artikulua 1. paragrafoko a) letraren i) tartekian aipatu diren nazio edo nazio anitzetako programei;

b) Finantza-horniduraren %5 esleituko zaie gehienez 6. artikulua 1. paragrafoko a) letraren i) tartekian aipatu diren mugez gaindikoko kooperazio-programei; 2. Aurrekontuen Autoritateak finantza-

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

esparruaren mugen barruan baimenduko ditu urteko kredituak.

30. artikulua

Berrikuspena

2010eko abenduaren 31 baino lehen, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari Erregelamendu honen aplikazioaren lehen hiru urteen ebaluazio-txostena emango die, eta egokia denean, beharrezko aldaketak jasotzen dituen legezko proposamena gehituko dio txostenari, 29. artikulua 1. paragrafoan aipatutako finantza-xehekatzea barne.

31. artikulua

Indargabetzeak

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrezkoak dira, eta Erregelamendua Estatu Kide bakoitzean zuzenean aplikagarria da.

Estrasburgon, 2006ko urriaren 24an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean

Presidentea

P. LEHTOMÄKI

ERANSKINA

1. artikuluan aipatzen diren herrialde elkartuak

Aljeria

Armenia

Zisjordaniko eta Gazako Zerrendako Autoritate Palestinarra

Azerbaijan

Bielorrusia

Egipto

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabeturik geratuko dira 1762/92 Erregelamendua (EEE), 1734/94 Erregelamendua (EE), eta 1488/96 Erregelamendua (EE).

2. Indargabetutako Erregelamenduak 2007 baino lehenagoko aurrekontu-ekitaldiekin lotutako ekintza juridiko nahiz konpromisoetarako aplikagarriak izaten jarraituko dute.

32. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean publikatu eta hogeitau egunetara sartuko da indarrean.

2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra aplikatuko da (16).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Errusiako Federazioa

Georgia

Israel

Jordania

Libano

Libia

Maroko

Moldavia

Siria

Tunisia

Ukrainia